



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko urtarrilaren 22a

12. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Zizur Nagusiko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina
(2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Zizur Nagusiko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 16an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako fiskalizazio-txostena, Zizur Nagusiko Udalari buruzkoa, 2012ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Zizur Nagusiko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Helburua (6. or.).
- III. Norainokoa (6. or.).
- IV. 2012ko kontu orokorrari buruzko iritzia (7. or.).
 - IV.1. Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorra (7. or.).
 - IV.2. Legezketasuna (7. or.).
 - IV.3. Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2012ko abenduaren 31n (7. or.).
 - IV.4. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetzea (11. or.).
- V. Udalaren 2012ko Kontu Orokorraren laburpena (12. or.).
 - V.1. 2012ko aurrekontu bateratuaren betetzearen egoera-orria (12. or.).
 - V.2. 2012ko aurrekontu-emaizta bateratua (13. or.).
 - V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orri bateratua 2012ko abenduaren 31n (13. or.).
 - V.4. 2012ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratua (14. or.).
 - V.5. Galera eta irabazien kontu bateratua 2012an (15. or.).
- VI. Udalari eta haren menpeko enteei buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (16. or.).
 - VI.1. Alderdi orokorrak (16. or.).
 - VI.2. Langileak (16. or.).
 - VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (19. or.).
 - VI.4. Transferentzien ondoriozko gastuak (20. or.).
 - VI.5. Inbertsioak (21. or.).
 - VI.6. Aurrekontuko diru-sarrerak (21. or.).
 - VI.7. Hirigintza (23. or.).
 - VI.8. Erakunde autonomoak (23. or.).

Eranskina. Udalaren oroitidazkia.

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta honako web helbidean:


www.cfn Navarra.es/camara.comptos.

I. SARRERA

Bere jarduketa-programari jarraituz, Kontuen Ganberak Zizur Nagusiko Udalaren eta haren menpeko enteen 2012ko kontu orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Zizur Nagusiko udalerrriak 5,5 km²-ko azalera du, eta 2012ko urtarrilaren 1ean 14.088 biztanle ditu.

Udalaren eta haren menpeko erakundeen osaera ondoko grafikoan agertzen da:



2012ko ekitaldia ixtean, erakunde horien funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2012-12-31n
Udala	10.836.573	10.970.842	105
Ardoi Kirol Patronatua	576.232	558.122	-
Kultur Patronatua	446.326	494.167	-
Musika Eskolaren Patronatua	451.904	466.067	15
Bateratzeko doitzeak	-693.119	-693.119	-
Bateratua, guztira	11.617.916	11.796.079	120

Udalak bere erakunde autonomoentzat 2012an egin dituen ekarpenak hauek izan dira: Ardoi Kirol Patronatuari, 196.400 euro; Kultur Patronatuari, 315.300 euro; eta Musika Eskolaren Patronatuari, 181.419 euro. Ekarpene hauek, orokorrean, ehuneko 10 egin dute behera 2011n egindakoekin alderatuta.

Udala sarturik dago Iruñerriko Mankomunitatean, eta horrek ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak, eskualdeko hiri garraiokoa nahiz taxikoa eta ibai parkearen kudeaketakoak. Eskualdeko garraioaren zerbitzuak 230.749 euroko kostua ekarri dio Udalari.

Laburbilduz, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taulan ageri direnak dira:

Udal Zerbitzuak	Udala	Erak. auton.	Mankom. Partzuergoa	Zerbitzu-kontratuak	Errentamen duak
Zerbitzu administratibo orokorrak	X				
Oinarrizko gizarte zerbitzua	X				
Etxez etxeko laguntza zerbitzua	X				
Genero indarkeriaren prebentzioa				X	
Lehen eta bigarren hezkuntzako hezkidetzak programak				X	
Berdintasun zerbitzuak	X				
Tokiko enplegu eta garapen zerbitzuak	X				
Kirola	X	X			
Kultura	X	X			
Musika eskola		X			
Hirigintza	X			X	
Lorategiak	X			X	
Uraren ziklo integrala			X		
Hiri hondakinak			X		
Garraio publikoa			X		
Haur hezkuntzako zentroaren zerbitzua, 0-3 urteko zikloa	X			X	
Kultur Etxearen kudeaketa	X			X	
Udal eraikinetako garbiketa eta mantentzea				X	
Kale garbiketa				X	
Kirol instalazioen funtzionamendua				X	
Kirol instalazioetako taberna-jatetxearen kudeaketa					X
Udal ludoteka	X			X	
Kultur Etxeko taberna-jatetxearen kudeaketa					X
Gaztetxearen kudeaketa	X			X	
Hiriko udalekuaren kudeaketa	X			X	
Diru-bilketa exekutiboa	X			X	

Toki entitateari 2012ko ekitaldian aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Orokorra. Nafarroako toki entitateetan aplikatzekoa dena.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.

Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.

Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitaterako moldatzen dituena.

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko 7/1985 Legea.

251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena.

Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, 1/2007 Foru Legeak toki entitateei buruz ezarritako berezitasunekin.

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.

35/2002 Foru Legea, lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzkoa.

Urriaren 26ko 13/2009 Errege Lege Dekretua, Enplegurako eta Tokiko Iraunkortasunerako Estatuko Funtsa sortu zuena.

Uztailaren 5eko 15/2010 Legea, merkataritza-eragiketen berankortasunaren aurkako neurriei buruzkoa.

Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako Toki Administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraukortasunari buruzkoa.

Abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legea, 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

Abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege Dekretua, defizit publikoa zuzentzeko aurrekontu, tributu eta finantza arloko presako neurriei buruzkoa.

Ekainaren 29ko 2/2012 Legea, 2012rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

Ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzkoa.

Uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretua, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzkoa.

Abenduaren 28ko 27/2012 Foru Legea, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitatean neurriak hartzen baitira aurrekontu-oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko.

Abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legea, aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duena, 2012rako eraginarekin, erosahalmenaren galera dela-eta.

Martxoaren 14ko 3/2012 Foru Legea, 2009-2012 Eperako Toki Inbertsioen Planari buruzko urriaren 24ko 16/2008 Foru Legea aldatu eta haren indarraldia luzatzen duena.

Abenduaren 21eko 246/2011 Foru Dekretua, Kontratuei buruzko Foru Legearen Europar Batasuneko atalaseak eguneratzen dituena.

- Berariazko araubidea:

Zizur Nagusiko Udalaren 2012ko aurrekontua betetzeko oinarriak eta Udalaren gainerako barne-arauak.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, 2012ko kontu orokorraren inguruko gure iritzia agertzen da. Bosgarrenean, Udalaren finantzen egoera-orri nagusien laburpen bat. Seigarren eta azken atalean, Udalaren antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo.

Halaber, eranskin bat gehitu da Udalak 2012ko ekitaldiko kontuei buruz eginiko oroitidazkiarekin.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Zizur Nagusiko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileei lan honetan emandako laguntzagatik.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Zizur Nagusiko Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin dugu.

Txostenak honako puntu hauei buruz dugun iritzia agertzea du helburua:

- Ea Zizur Nagusiko Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza erakusten duen alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreren aurrekontuaren likidazioari eta 2012ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaituriko urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraikiz.

- Udalak eta bere erakunde autonomoek 2012an izandako finantza-jarduerari aplikatzekoa zaion legeriaren betetze-maila.

- Udalaren finantza-egoera 2012ko abenduaren 31n.

- Zenbateraino betetzen diren Ganbera honek 2011ko ekitaldiari buruzko txostenean emandako aholkuak.

Udalak eta haren menpeko entitateek ezarritako barne-kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetu edo/eta osatze aldera.

III. NORAINOKOA

Zizur Nagusiko Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorrak hauek ditu osagai nagusiak:

- Toki entitatearen beraren kontua eta haren erakunde autonomoenak: aurrekontuaren betetze-mailari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaitza, diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.

- Kontu orokorraren eranskinak: egoera-orri bateratuak (Udala eta erakunde autonomoak), oroitidazkia eta zorraren egoera-orria.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren Fiskalizazio Eskuliburuan garatutako sektore publikoaren kontu-ikuskaritzari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautaproba edo prozedura tekniko guztiak bildu dira; prozedura horien barruan, laginketaren teknika edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa erabili da.

Zehazki, Udalari eta haren erakunde autonomoei dagokienez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarritzko prozedura administratiboak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako alderdi nabarmenenak.

IV. 2012ko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Zizur Nagusiko Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea, bai eta haren edukia ere, Udalaren ardura da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen V. atalean.

Gure lanaren emaitza gisa, honako iritzi hau atera dugu:

IV.1. UDALAREN 2012ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta haren eguneratzea oraindik egin gabe dago; horregatik, ezinezkoa izan da ibilgetu finkatuaren kontabilitate-saldoa arrazoizkoa den egiaztatzea; saldo hori, 2012ko abenduaren 31n, 27,9 milioi eurokoa zen.

Arestian aipaturiko salbuespenaren ondorioei dagokienez izan ezik, Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorrak alderdi behinenetan leialki irudikatzen ditu bere gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta bere eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko beharrezko informazioa biltzen du, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke 2012ko ekitaldian Udalaren eta haren erakunde autonomoen jarduera ekonomiko eta finantzarioa oro har legezketasun-printzipioari jarraituz egiten dela.

IV.3. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANZARIOA 2012ko ABENDUAREN 31n

Udalaren hasierako aurrekontu bateratuak 12,5 milioiko gastuak eta 12,6 milioiko diru-sarrerak dauzka; zenbateko hori ehuneko zortzi handitu da aurrekontu-aldaketan bitartez; horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak 13,6 milioikoak dira.

Aldaketak kreditu-gerakinen gehikuntzei, kreditu bereziei eta kreditu-osagarriei dagozkie; hain zuzen ere, ondasun arrunten eta zerbitzuen, transferentzia arrunten eta inbertsio errealeen kontusail batzuk handitzeko erabili direnei.

Aitortutako betebeharrak 11,6 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 86ko betetze-maila izan dute. Desbideratze horren arrazoia da, funtsean, langile-gastuen betetze-maila aurreikusitakoa baino txikiagoa izatea -ehuneko 87koa-, abenduko aparteko paga aurreztu delako, eta inbertsio errealetan ere betetze-maila aurreikusitakoa baino txikiagoa izatea -ehuneko 43koa-, egitekoak ziren inbertsio eta zaharberritze obretako asko ez direlako burutu.

Aitortutako eskubideek 11,8 milioi euro egiten dute, eta betetze-maila ehuneko 87koa izan da. Portzentaje hori azal daiteke, funtsean, diru-sarreretako kapitulu guztietan betetzea handia izan delako. Betetze handi horrek kontrastea egiten du zeharkako zergetan izandako betetze txikiarekin -ehuneko 9koa-, etxebizitzak eraikitzeko aurreikusitako obrak ez baitira egin.

Haien izaerari erreparatuta, gastu arruntak eta inbertsioak gastu guztien ehuneko 95 eta ehuneko 5 dira, hurrenez hurren. Diru-sarrera arruntak guztizkoaren ehuneko 92 dira; diru-sarreraren ehuneko 46, berriz, jasotako transferentzietatik heldu dira (ehuneko 38 transferentzia arruntetatik eta ehuneko 8 kapital-transferentzietatik).

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu diren Udalaren gastuen 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantzaketa-iturria	Zenbatekoa
Langileak	38	Tributu bidezko diru-sarrerak	48
Bestelako gastu arruntak	57	Transferentziak	46
Inbertsioak	5	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste batzuk	6
Guztira	100		100

Hona Udalaren 2012rako aurrekontuaren betetzeari buruzko datu ekonomikoak eta 2011koarekiko alderaketa:

	2011	2012	Aldea (%), 2012/2011
Aitortutako betebeharrak, guztira	11.264.823	11.617.916	3
Likidatutako eskubideak, guztira	13.301.058	11.796.079	-11
Gastuen betetzea (%)	57	87	53
Diru-sarreren betetzea (%)	67	86	28
Ordainketak (%)	92	93	1
Kobrantzak (%)	95	93	-2
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	10.637.509	11.067.065	4
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	10.637.509	11.067.065	4
Inbertsioen gastuak (6. eta 7. kapituluak)	617.314	519.201	-16
Finantza eragiketen gastuak (8.a eta 9.a)	10.000	31.649	216
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	12.900.432	10.828.509	-16
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	8.097.650	5.687.241	-30
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	390.217	949.947	143
Finantza eragiketen bidezko diru-sarrerak (8. eta 9. kapituluak)	10.408	17.623	69
Diru-laguntzen menpekotasunak (%)	35	46	31
Gastu arrunten gaineko tributu bidezko diru-sarrerak (%)	76	51	-33
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	2.035.827	192.190	-91
Aurrekontu-emaiza doitua	2.162.670	-96.149	-104
Aurrezki gordina	2.262.924	-238.556	-111
Finantza-zama (3. eta 9. kapituluak)	0	0	0
Aurrezki garbia	2.262.924	-238.556	-111
Zorpetze-maila (%)	0	0	0
Zorpetzearen muga (%)	17,54	-2,20	-113
Zorpetze-ahalmena (%)	17,54	-2,20	-113
Diruzaintza-gerakina, guztira	28.241.644	28.042.299	-1
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	3.106.370	2.563.668	-17
Zor bizia	0	0	0

Udalak 2012an ehuneko 3 gehiago gastatu du 2011n baino; hau da, 400.000 euro gehiago gastatu ditu. Igoera horren arrazoi nagusia ondasun arruntak eta zerbitzuak erosteko gastuen eta transferentzia arrunten igoera da, hurrenez hurren ehuneko 7 eta ehuneko 48 egin baitute gora.

Diru-sarrerak, berriz, aurreko ekitaldikoan aldean ehuneko 11 murriztu dira. Gehien murriztu den kapitulua zeharkako zergena da (EIOZa), zeina 2011n 2,6 milioikoa izatetik 2012an 100.000 eurokoa izatera iragan baita. Beherakada hori Ardoi sektorean 2011ko ekitaldian egindako hirigintzako jarduketan ondorio da: ez dira aldiaren behingo jarduketak izan, gertaera jakin batek eragindakoak baizik, eta 2012an apenas likidatu den zeharkako zergarik arrazoi horrengatik.

Gastu arruntetan ehuneko 4ko igoera izan da, eta diru-sarrera arruntetan, aldiz, ehuneko 16ko jaitsiera. Gastu arrunten igoera gertatu da gastuak hazi egin direlako ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketaren kapituluan eta transferentzia arrunten kapituluan, baina gehikuntza hori neurri batean konpentsatu du langileen kapituluan izandako ehuneko 4ko beherakadak. Diru-sarrierei dagokienez, zeharkako zergen kapituluan izandako beherakadak justifikatzen du murrizketa.

Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa positiboa da 200.000 euroz; aurreko urtean, aldiz, 2 milioi euroko saldo positiboa izan zen. Saldo horrek erakusten digu diru-sarrera ez-finantzarioak nahikoa direla izaera bereko gastuak finantzatzeko, baina aurreko urtearen aldean egoerak okerrera egin du, gastuen igoera eta diru-sarriren beherakada direla-eta.

Aurrekontu-emaizta doituak 100.000 euroko defizita du ekitaldiaren itxieran, batetik zeharkako zergen beherakada handiak eta bestetik ekitaldiko gastu arrunten igoerak eragindakoa. 2011n, emaitza 2,2 milioi euroko superabita izan zen.

2012an bai aurrezki gordinak bai garbiak 200.000 euroko balio negatiboa dute, 2011koa (2,3 milioi euroko balio positiboa) baino txarragoa. Horren arrazoiak izan dira zeharkako zergen bilketaren jaitsiera, goian aipatutakoa, eta gastu arrunten gehikuntza.

Zorpetze-maila ehuneko zerokoa da, eta bere muga negatiboa da, ehuneko 2koa; horrenbestez, Udalak badu zor berria hartzeko gaitasun ekonomikoa.

Diruzaintza-gerakina, guztira, 28 milioi eurokoa da, eta 2011n 28,2 milioi eurokoa izan zen. Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina edo hurrengo ekitaldian gastuak finantzatzeko gaitasuna neurtzen duen adierazlea 2,6 milioi positiboa da, eta behera egin du 2011koaren aldean, orduan magnitude horrek 3,1 milioiko balioa baitzuen.

Adierazi behar dugu, gainera, Ardoi sektorean etxebizitzak eraikitzeagatik 2011n eta 2012an igorritako EIOZen itzulketarako hainbat eskaera jaso direla 2013ko ekitaldian. Hain zuzen ere, 2011n eta 2012an igorri eta kobratutako 384 mila euroko EIOZak itzuli dira, guztira, 2013ko ekitaldian, eta 2011n igorri ziren eta kobratu gabe zeuden 140 mila euroko EIOZak deuseztatu dira 2013an.

Udalak ez du epe luzeko zorrik.

Balantze bateratuko eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak, abenduaren 31n, 28,1 milioikoak dira.

Honako hau izan da diru-sarreraren eta gastuen betetze-egoeraren eboluzioa kapituluka, 2006ko ekitalditik hasi eta 2012ra arte:

Gastuak

Deskribapena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
1. Langile-gastuak	4.087.381	4.090.435	4.509.275	4.732.743	4.818.854	4.610.140	4.441.090
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	4.630.397	4.776.473	4.892.675	5.098.744	5.512.062	5.584.683	5.970.938
3. Finantza-gastuak	1.788	1.976	612	13	-	-	-
4. Transferentzia arruntak	436.046	442.918	609.071	920.690	466.269	442.686	655.038
6. Inbertsio errealak	15.205.602	21.297.175	5.047.587	3.095.225	9.119.836	617.314	519.201
7. Kapital-transferentziak	-	-	-	-	-	-	-
8. Finantza-aktiboak	10.200	21.400	20.995	24.800	7.400	10.000	31.649
9. Finantza-pasiboak	-	-	-	-	-	-	-
Guztira	24.371.414	30.630.377	15.080.215	13.872.215	19.924.421	11.264.823	11.617.916

Diru-sarrerak

Deskribapena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
1. Zuzeneko zergak	2.743.759	2.316.514	2.671.586	2.637.639	3.010.842	3.120.865	3.128.282
2. Zeharkako zergak	54.357	4.699.970	167.149	36.388	286.946	2.624.633	131.747
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	3.012.410	2.683.937	2.688.870	2.677.558	2.607.964	2.352.152	2.427.213
4. Transferentzia arruntak	3.930.759	4.110.296	4.610.758	4.575.991	4.932.147	4.310.629	4.434.786
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	895.818	1.204.503	1.895.093	703.802	349.825	492.153	706.481
6. Inbertsio errealen besterentzea	22.060.247	94.996	-	9.359	-	-	-
7. Kapital-transferentziak	20.555.235	9.565.916	4.807.736	2.928.347	1.881.198	390.217	949.947
8. Finantza-aktiboak	5.075	13.660	20.839	16.381	20.907	10.409	17.623
9. Finantza-pasiboak	-	-	-	-	-	-	-
Guztira	53.257.660	24.689.792	16.862.031	13.585.465	13.089.829	13.301.058	11.796.079

Konparazio horrek agerian jartzen du Udalak 2006ko eta 2007ko ekitaldietan izandako hirigintzako jarduera garrantzitsua. Jarduera horrek diru-sarrera ugari ekarri zion inbertsio errealen besterentzearen kapituluan (lurren besterentzeagatik), kapital-transferentzietan (jabeei igorri zitzaizkien urbanizazio-kuotengatik), zeharkako zergetan (EIOZengatik) eta tasetan eta bestelako diru-sarreretan (urbanizazioa kudeatzeko tasengatik); bai eta inbertsio-gastuak ere, batez ere urbanizazio arlokoak.

Horrelako jarduketetatik sortutako diru-sarrerak beherantz hasi ziren 2008tik aurrera, eta igo egin ziren diru-sarrera arruntak. Aldi berean nabarmen hazi ziren ondasun arrunten eta zerbitzuen ataleko gastuak, udalerrria zerbitzu berriez hornitzeko edo lehendik zeuden zerbitzuak handitzeko behararen ondorioz.

Hala, 2006tik 2012ra bitartean diru-sarrera arruntak ehuneko 11 inguru igo dira (kontuan hartu gabe 2006ko urbanizazio tasen 850 mila euroak) eta gastu arruntak, berriz, ehuneko 21.

Horren ondorioz urritu egin da gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina. Izan ere, 2009ko ekitaldiaren itxieran gorenera -5,7 milioi euro- iritsi ondoren, 2012ko ekitaldiaren itxieran 2,6 milioi eurokoa da.

Horrela, bada, azken laburpen gisa, Udalak oso finantza-egoera ona du gaur egun, inguruabar hauek tarteko, batez ere: udalerrian azkeneko urte hauetan egin diren hirigintzako jarduketa garrantzitsuek eragindako diru-sarrerak, urteotako kudeaketa zuhurra, eta azken bi ekitaldietan egindako inbertsio urriak. Udalak ez du epe luzeko zorrik eta oso nabarmentzekoak diren funts likidoak dauzka.

Baina 2012ko ekitaldian, hirigintzako jarduketaren bidezko diru-sarrerarik ezean, diru-sarrera arruntak ez dira funtzionamendu-gastuak finantzatzeko behar adinakoak izan, aurrekontu-

emaitza doitua negatiboa izan da, eta gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinak behera egin du 2011ko ekitaldikoaren aldean.

Horregatik, bada, eta epe ertainean Udalaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko helburuarekin, ezinbestekoa da Udalak, dagokion planaren bitartez, hainbat neurri hartzen jarraitzea, bere gastu arruntei eusteko eta baliabide arruntak sortzeko ahalmena indartzeko aukera emanen diotenak.

Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioaren betetzea kalkulatu da toki korporazioei egokitutako kontabilitate nazionalaren defizita kalkulatzeko eskuliburua aplikatuz –eskuliburu hori Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailletza Nagusiak egindakoa da–. Emaitza hurrengo taulan azaltzen da:

Kontzeptua	Zenbatekoa
I.-VII. bitarteko kapituluetakoa gastuak, guztira	11.586.266
I.-VII. bitarteko kapituluetakoa diru-sarrerak, guztira	11.778.456
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	191.190
Finantzatzeko ahalmena	191.190

Ikus daiteke, beraz, Zizurko Udalak aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren betekizunak betetzen dituela, ez baitu zorrik.

Fiskalizazioaren iritzia ezertan ukitu gabe, Kontuen Ganbera honek nabarmendu nahi ditu egungo krisi ekonomikoko arriskuen ondorioz dagoen egoera, egoera horrek Udalaren kontu publikoen gainean dituen eragin finantzarioak eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauetatik heldu diren aurrekontu-betebeharrak. Testuinguru honetan, aurrekontuen plangintzan eta exekuzioan zorrotz jokatzeko eta funts publikoen erabileran gardentasuna izateak herritarren funtsezko beharrekin bat datorren kudeaketa publiko baten oinarriko baldintza izan behar dute.

IV.4. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA

Ganbera honek 2011ko ekitaldiari buruz eginiko txostenari dagokionez, orduan emandako honako gomendio garrantzitsu hauek ezarri dira edo ezartzeko fasean daude:

- *Hautapen prozesu guztietan bermatzea gardentasun, publizitate eta lehia askearen printzipioak betetzen direla.*

- *Egindako kontratuen indarraldia gehiago kontrolatzea eta dagokion lizitazio-prozeduraren hasiera behar adinako denboraz planifikatzea.*

Oraindik betetzeke daude, txosten honen VI. atalean esaten den moduan, gomendio garrantzitsu hauek:

- *Udal inbentarioa eguneratzea eta onestea.*
- *Patronatuak udal zerbitzu deszentralizatuak bihurtzeko aukerak aztertzea.*
- *Plantilla organikoan bete gabe dauden lanpostuak betetzeko kontratu mota egokiak erabiltzea.*

- *Urteko gastuaren kontratuaren balioa alde aurretik zenbatets daitekeen kasuetan, behar diren kontratazio-espedienteak izapidetzea.*

V. UDALAREN 2012ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren, 2012ko kontu orokorraren kontabilitateko egoera-orri bateratu garrantzitsuenak azaltzen ditugu:

V.1. 2012ko AURREKONTU BATERATUAREN BETETZEAREN EGOERA-ORRIA**Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera**

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordaintzeke dagoena	Ordaintzeke dagoena (%)
1. Langile-gastuak	5.043.985	35.500	5.079.485	4.441.090	87	4.362.172	78.917	2
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	6.270.928	226.115	6.497.044	5.970.938	92	5.452.846	518.092	9
3. Finantza-gastuak	-	-	-	-	-	-	-	-
4. Transferentzia arruntak	410.588	294.549	705.137	655.038	93	553.378	101.660	16
6. Inbertsio errealak	658.002	550.384	1.208.386	519.201	43	457.235	61.966	12
7. Kapital-transferentziak	100.000	(100.000)	-	-	-	-	-	-
8. Finantza-aktiboak	54.000	-	54.000	31.649	59	31.649	-	-
9. Finantza-pasiboak	-	-	-	-	-	-	-	-
Guztira	12.537.503	1.006.549	13.544.052	11.617.916	86	10.857.280	760.635	7

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Kobrantsak	Kobratzeke dagoena	Kobratzeke dagoena (%)
1. Zuzeneko zergak	2.911.000	-	2.911.000	3.128.282	107	2.838.125	290.157	9
2. Zeharkako zergak	1.480.000	-	1.480.000	131.747	9	130.665	1.081	1
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	2.376.394	-	2.376.394	2.427.213	102	2.339.521	87.692	4
4. Transferentzia arruntak	4.444.024	-	4.444.024	4.434.786	100	4.041.442	393.344	9
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	544.185	-	544.185	706.481	130	705.360	1.121	0
6. Inbertsio errealen besterentzea	-	-	-	-	-	-	-	-
7. Kapital-transferentziak	749.900	-	749.900	949.947	127	949.947	0	0
8. Finantza-aktiboak	54.000	1.006.549	1.060.549	17.623	2	17.623	0	0
9. Finantza-pasiboak	-	-	-	-	-	-	-	-
Guztira	12.559.503	1.006.549	13.566.052	11.796.079	87	11.022.683	773.396	7

V.2. 2012ko AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA

Kontzeptua	2011	2012
+ Aitortutako eskubideak	13.301.058	11.796.079
- Aitortutako betebeharrak	11.264.823	11.617.916
= Aurrekontu-emaitza	2.036.235	178.163
Doitzeak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	-	-665.773
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	108.530	35.160
+ Diruzaintza-gerakinarekin gehikuntza bidez finantzatutako gastuak	17.905	356.301
+ Ekitaldiko diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	-	-
= Aurrekontu-emaitza doituak	2.162.670	-96.149

V.3. DIRUZAINZA-GERAKINAREN EGOERA-ORRI BATERATUA 2012ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2011	2012
(+) Kobratzeke dauden eskubideak	723.916	930.821
(+) Diru-sarrerren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	640.164	773.396
(+) Diru-sarrerren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	525.932	742.549
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	49.146	15.935
(+) Ordainketen itzulketak	575	0
(-) Nekez kobratzeko eskubideak	-467.609	-575.839
(-) Aplikatzeke dauden diru-sarrerak	-24.292	-25.219
(-) Ordaintzeke dauden betebeharrak	1.117.829	950.650
(+) Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	895.173	760.635
(+) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	3.132	690
(+) Diru-sarrerren itzulketak	2.960	76
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	216.564	189.248
(+) Diruzaintzako funts likidoak	28.435.557	28.062.128
(+) Finantzaketa-desbideratze metatu negatiboak	200.000	0
= Diruzaintza-gerakina, guztira	28.241.644	28.042.299
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	79.311	44.150
Diruzaintza-gerakina, baliabide atxikiak direla-eta	25.055.963	25.434.481
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	3.106.370	2.563.668

V.4. 2012ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZE BATERATUA

Aktiboa

Deskribapena	2012	2011
A. Ibilgetua	27.951.677	27.587.188
1. Ibilgetu materiala	27.436.182	27.024.157
2. Ibilgetu ez-materiala	450.027	442.017
3. Erabilera orokorrerako azpiegitura eta ondasunak	63.487	119.033
4. Herri-ondasunak	-	-
5. Finantza-ibilgetua	1.981	1.981
C. Zirkulatzaila	29.959.095	29.666.039
8. Zordunak	1.531.880	1.215.817
9. Finantza-kontuak	28.091.101	28.450.222
Aktiboa, guztira	57.574.657	57.253.227

Pasiboa

Deskribapena	2012	2011
A. Funts berekiak	56.598.787	56.111.105
1. Ondarea eta erreserbak	38.712.376	36.289.561
2. Ekitaldiko emaitza ekonomikoa, mozkina (edo galera)	(307.553)	2.577.527
3. Kapitaleko diru-laguntzak	18.193.964	17.244.017
C. Epe luzeko hartzekodunak	-	-
4. Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailuak	-	-
D. Epe laburreko hartzekodunak	975.870	1.142.122
5. Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	950.651	1.117.830
6. Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	25.219	24.292
Pasiboa, guztira	57.574.657	57.253.227

V.5. GALERA ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA 2012an

Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2012	2011	Deskribapena	2012	2011
3 Hasierako izakinak	-	-	3 Bukaerako erosketak	-	-
39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	-	-	39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	-	-
60 Erosketak	-	-	70 Salmentak	1.938.794	1.956.719
61 Langile-gastuak	4.561.140	4.919.515	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	1.138.626	820.969
62 Finantza-gastuak	-	-	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	2.217.367	4.594.397
63 Tributuak	-	-	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	659.781	626.347
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	5.850.888	5.411.401			
65 Gizarte prestazioak	-	-	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	-	-
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	-	-	76 Transferentzia arruntak	4.434.786	4.310.629
67 Transferentzia arruntak	655.038	466.268	77 Kapitalaren gaineko zergak	382.880	524.754
68 Kapital-transferentziak	-	-	78 Bestelako diru-sarrerak	56.276	455.373
69 Amortizazio eta horniduretarako zuzkidurak	-	-	79 Beren helbururako aplikatutako hornidurak	-	-
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	-	410.278	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	238.556	-
Guztira	11.067.066	13.289.188	Guztira	11.067.066	13.289.188

Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2012	2011	Deskribapena	2012	2011
80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)	238.556	-	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	-	2.651.679
82 Ezohiko emaitzak (saldo zorduna)	-	46.525	82 Ezohiko emaitzak (saldo hartzekoduna)	74	-
83 Balore-karteraren emaitzak (saldo zorduna)	-	-	83 Balore-karteraren emaitzak (saldo hartzekoduna)	-	-
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)	69.071	27.627	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)	-	-
89 Mozkin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	-	2.577.527	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	307.553	-
Guztira	307.627	2.651.679	Guztira	307.627	2.651.679

VI. UDALARI ETA HAREN MENPEKO ENTEEI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz Udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko iruzkin eta gomendio nagusiak emanen ditugu.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

2012ko ekitaldirako aurrekontuari 2011ko abenduaren 22ko osoko bilkuran eman zion Udalak behin-behineko onespena, eta 2012ko urtarrilaren 27an sartu zen indarrean, behin betiko onespena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenean.

2013ko maiatzaren 31ko osoko bilkuran onetsi ziren 2012ko kontuak.

Kirol eta Kultur patronatuek Udaleko langileen eta instalazioen bitartez ematen dituzte beren zerbitzuak; Musikako Patronatuak bertako langileak ditu, eta udal instalazioetan egiten ditu bere jarduerak.

Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta gaurkotzeko dago.

Ez da aurkitu 2012ko fakturarik 2013ko aurrekontuari egotzi zaionik.

Egindako azterketan ikusienez, zenbait kasutan gairitu egin da hornitzaileei ordaintzeko epea, baina, oro har, ez dira kontuan hartzeko epeak eta zenbatekoak izan. Ez da berandutzako interesik ordaindu legez ezarritakoa baino epe luzeagoan hornitzaileei eginiko ordainketengatik.

Zizur Nagusiko Udalaren aurka 2012ko ekitaldian aurkeztutako errekurtsoen azterketa eginik, ondorioztatzen da Udalak ez dituela izanen, aldez aurretik esanda, nabarmentzeko moduko zenbatekoen erantzukizun ekonomikorik.

Gure aholkuak:

- *Patronatuak udal zerbitzu deszentralizatuak bihurtzeko aukerak aztertzea.*
- *Udal ondasunen eskrituratze- eta erregistratze-prozesua osatzea.*
- *Udal inbentarioa eguneratzea eta onartzea, eta inbentarioko altak eta bajak kontrolatzeko eta jarraitzeko sistema bat ezartzea, hura etengabe gaurkotze aldera eta kontabilitateko ibilgetuarekin duen lotura bermatu eta bideratze aldera; horretarako, bereizirik idatzi behar dira lurzoruaren udal ondareari dagozkion ondasunak.*

VI.2. LANGILEAK

Langileen atalaren gastuak 4,4 milioi euro egiten du; hau da, 2012an sortutako gastu guztien ehuneko 38 eta gastu arrunten ehuneko 40.

2011ko ekitaldiarekin alderatuta, kapitulu hau ehuneko 4 gutxitu da, honako xehetasunen arabera:

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%)
	2011	2012	
Goi-karguak	41.608	41.414	0
Funtzionarioak	2.560.786	2.401.958	-6
Lan-kontratudun finkoak	492.301	464.947	-6
Aldi baterako lan-kontratudunak	337.831	337.447	0
Gizarte zamak	1.117.614	1.195.324	1
1. kapituluak, guztira	4.610.140	4.441.090	-4

Langileen ataleko gastuak murriztu dira, funtsean, Udalak ez dielako langileei ordaindu abenduko aparteko paga, 20/2012 Errege Lege Dekretuan ezarritakoarekin bat.

Udalaren Osoko Bilkurak 2012ko plantilla organikoa 2012ko otsailaren 23an onetsi zuen behin betiko. Guztira 95 lanpostu dauzka eta horietatik 22 lanpostu daude hutsik 2012ko abenduaren 31n. Bestalde, Musika Eskolako Patronatuaren Batzordeak 2012ko plantilla organikoa 2012ko urtarrilaren 29an onetsi zuen behin betiko, 13 lanpostu zituela, eta 2012ko ekitaldian plantilla organiko hori aldatu egin da, lanpostu berri bat sortuz. 2012ko abenduaren 31n plaza bakar bat zegoen hutsik.

Bi plantilla horiek lanpostuen arabera banatzen dira, honako taulei jarraituz:

Zenbat	Lanpostuak	Jardunean	Lanpostu hutsak	Betetako lanpostu hutsak
A. Udala	95	73	22	20
Funtzionarioak	84	67	18	16
Lan-kontratadun finkoak	10	5	4	4
Izendapen askea	1	1	-	-
B. Musika Eskolaren Patronatua	14	13	1	1
Funtzionarioak	0	0	0	0
Lan-kontratadun finkoak	14	13	1	0
Guztira	109	86	23	21

2012ko abenduaren 31n, Udalean eta haren erakunde autonomoetan 120 pertsonak egiten zuten lan:

Langileak	Udala	Musika Eskolaren Patronatua	Guztira
Udal-batzarkideak	1	0	1
Behin-behineko langileak - izendapen askekoak	1	0	1
Funtzionarioak	65	0	65
Praktiketako funtzionarioak	4	0	4
Lan-kontratadun finkoak	6	13	19
Administrazio-araubidean kontratatuak	3	0	3
Zerbitzu-eginkizunetan dauden funtzionarioak	2	-	2
Bitarteko lan-kontratadunak	23	1	24
Aldi baterako kontratatadunak	-	1	1
Guztira	105	15	120

2011ko ekitaldiarekin alderatuta, 3 langile gutxiago ditu Udalak.

Udalaren aipatutako langileak honako arloei daude atxikiak:

Arloak	Kopurua
Alkatea	1
Idazkaritza	10
Zerbitzu ekonomikoak	7
Kultura	6
Kirola	4
Gizarte zerbitzuak	20
Hirigintza zerbitzuak	10
Lorezaintza zerbitzua	11
Segurtasuna eta babesa	28
Ikastetxea	6
Berdintasuna	2
Udala, guztira	105

Bai 2011n bai 2012an langileen ehuneko 40 inguru segurtasunaren eta gizarte zerbitzuen arloetan ari dira.

2012an, honako bi hautapen-prozedurak egin dira funtzionarioen lanpostuak betetzeko.

- Udaltzaingoko funtzionarioa izateko bost lanpostu.
- Lorezaintzako langile funtzionarioa izateko lau lanpostu.

Bi espediente horiek direla-eta, azpimarratu behar dugu prozedura horietan lanpostua lortu duten langileak oraindik izendatu gabe daudela txosten hau egiteko garaian, Nafarroako Administrazio Auzitegiak baliogabetzat jo dituelako deialdiak, kontuan izanik Udalak ez duela ordezkari sindikalekin kontsultatu 2012rako lan eskaintza publikoa (tartean bi deialdi horiek), hura osoko bilkuran onetsi eta NAOn argitaratu aurretik.

Administrazioarekiko Auzien Auzitegian errekurtsua jartzeko asmotan dabil Udala, lan eskaintza publikoa onetsi baino lehen kontsulta egin omen zuelako.

Langile-gastuen lagin bat aztertuta, ondorio hauek atera ditugu: oro har, langile-gastuak behar bezala kontabilizatuta daude; ordaindu diren lansariak betetako lanposturako erabakitakoak dira; egindako atxikipenak zuzenak dira; eta bete da ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzkoa, baita 20/2012 Errege Lege Dekretuaren 2. artikulua ere, abenduko aparteko paga kentzeko agintzen duena.

Udalak egindako kontratazioak aztertuta, ikusi da beti ez dela kontratu-modalitate egokia hautatu plantillan bete gabeko lanpostuak aldi baterako betetzeko.

Udalbatzako kideen lansariei eta bilkuretara joateagatik eta karguan aritzeagatik kobratzen dituzten kalte-ordainei dagokienez, alkateak bere dedikazio eskusiboagatik 2012ko ekitaldian 39.289 euroko ordainsari gordina jaso du, 2011ko ekitaldian jaso zuen zenbateko berbera. Ez dago udalbatzako beste kiderik dedikazio eskusiboa edo partziala duenik.

Bilkuretara joateagatik sariak direla-eta guztira 101.888 euroko gastua egin da 2012an. Kontzeptu horri dagokion gastua 88.183 eurokoa izan zen 2011n. Bilera gehiago egin direlako handitu da gastua, izan ere bilkuretara joateagatik jasotzen den zenbatekoa izoztuta baitago 2010eko ekitalditik: 166,2 euro osoko bilkurara joateagatik, 132,8 euro batzordera joateagatik eta 99,61 euro informazio batzordera joateagatik; guztira 730,47 euro hilean, gehienez ere, kide bakoitzeko.

Kalte-ordain horiek II. kapituluaren kontabilizatzen dira.

Gure aholkuak:

- *Plantilla organikoan bete gabe dauden lanpostuak betetzeko kontratu mota egokiak erabiltzea.*

VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan eginiko gastuek 6 milioi euro egin dute 2012ko ekitaldian; guztira, ekitaldiko gastuen ehuneko 51,4 eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 53,9 egiten dute. 2011. urtearen aldean, ehuneko 6,9 egin dute gora.

2012ko datuekin alderatuta izandako igoera hori justifikatzen da, funtsean, zenbait horniduraren kostuak eta balio erantsiaren gaineko zergak gora egin dutelako eta udal zerbitzuak (argindarra, garbiketa etab.) Ardoi sektorerara hedatu behar izan direlako.

Kapitulu honi egotzitako honako kontratazio-espeditente hauek aztertu dira. Espeditente horiek betetze-fasean daude 2012ko amaieran (zenbatekoak BEZik gabeak dira):

Deskribapena	Kontratu mota	Adjudikazio prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Adjudikazioaren zenbatekoa
Erregai hornidura. 2012-2015	Hornidura kontratua	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	49.100	2	47.269
Garbitzeko materialen hornidura. 2012-2015	Hornidura kontratua	Negoziatua, Europar Batasunean publizitaterik egin gabea	18.000	9	10.641

Aurreko azterketatik eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin batetik ondorioztatzen da Udalak modu arrazoizkoan betetzen duela kontratazioaren arloan indarra duen araudia, gastu errepikarien kasuan izan ezik, urtearen amaierarako gastu horiek izan dituzten zenbatekoak kontratazio-espeditentea izapidetu behar izateko adinakoak baitira. Dena den, ezin da beti ongi aurreikusi inguruabar hori.

Gure aholkuak:

- *Kontratuaren balioa alde aurretik zenbatets daitekeen kasuetan, behar diren kontratazio-espeditenteak izapidetzea.*

VI.4. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Izaera hau duten gastuek 655.000 euro egiten dute, eta 2012an sortutako gastu guztien ehuneko 6 dira. Ez dago kapital-transferentziengatik gasturik, ez ekitaldi honetan, ez 2011koan.

Honako hau da gastu horiek 2011ko ekitaldian eta 2012ko ekitaldian alderatzeko taula, artikuluz artikulukoa:

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%), 2012/2011
	2011	2012	
Toki entitateei	28.566	8.534	-70
Familiei	167.549	342.317	104
Irabazi-asmorik gabeko erakundeei	246.571	304.187	23
4. Transferentzia arruntak	442.686	655.038	48

2011rekin alderatuta gastu horiek ehuneko 48 hazi dira, funtsean familientzako transferentzien gehikuntzagatik, eraikinen zaharberritzeko emandako laguntzen gehikuntzagatik –164 mila euro gehiago– eta irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako laguntzen gehikuntzagatik –60.000 euro gehiago–, garapenerako emandako laguntzen gehikuntzagatik.

Honako hauek dira 2012an emandako diru-laguntza garrantzitsuenak:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Eraikinen zaharberritzea	257.949
Garapenerako laguntza ekonomikoa	109.300
Familietan esku hartzeko programa	81.869
Futbol klubarentzako diru-laguntza	60.614
Saskibaloï fundazioarentzako diru-laguntza	37.235
Zizur Nagusiko banda	36.000
Guztira	582.967

Egindako azterketatik ondorioztatzen da Udalak egoki betetzen duela indarra duen araudia, diru-laguntzak emateari dagokionez.

Udalak ez du ez ordenantza orokorrik, ez diru-laguntzen plan estrategikorik, nahiz eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak hori ezartzen duen; hala eta guztiz ere, diru-laguntzen ematea berariazko ordenantzen bidez erregulatuta dauka.

Gure aholkuak:

- *Diru-laguntzen plan estrategiko bat egitea, eta bertan zehaztea helburuak, efektuak, aurreikusitako kostuak, baliabideen aurreikuspena, eragina eta abar.*
- *Diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duen ordenantza orokor bat onartzeko egonkortasuna aztertzea.*

VI.5. INBERTSIOAK

2012. urterako behin betiko aurrekontuan aurreikusitako inbertsioen (1,2 milioi) ehuneko 43 bete da, eta 0,5 milioira iritsi da; hain zuzen ere, ekitaldiko betebeharrak guztien ehuneko 4.

Kapitulu honek betetze-maila apala izan du, batez ere, udal instalazioetan eta bide publikoetan aurreikusita zeuden zaharberritze obretako batzuk azkenean ez direlako burutu fiskalizaziopeko ekitaldian.

2011ko ekitaldiaren aldean, inbertsioek ehuneko 16 egin dute behera.

Hauek izan dira kapitulu honetan egotzitako gastu nagusiak:

Inbertsioa	Zenbatekoa
Ikastetxeetan egindako inbertsioa	102.256
Futbol zelaietan egindako inbertsioa	52.292
U-A Ardoi sektoreko urbanizazioa	48.286

2012an gauzatutako gastuak aztertuta, ondorioztatzen da Udalak, oro har, kontratazioaren arloko araudi indarduna bete duela.

VI.6. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2012ko ekitaldian aitortutako eskubideak 11,8 milioioak izan dira; ehuneko 92 eragiketa arruntengatiko diru-sarrerari dagozkien eta ehuneko 8, berriz, kapital-eragiketei.

Eragiketa arruntan artean tributuen bidezko diru-sarrerak (3,3 milioi eurokoak) eta transferentzia arruntak (4,4 milioi eurokoak) nabarmentzen dira. Kapital-eragiketetan, kapital-transferentziak dira azpimarratzekoak (0,9 milioi).

Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatze-maila ehuneko 86,9koa izan da. Diru-sarreraren kapitulu guztietan ehuneko 100dik gorako gauzatze-mailak izan dira, salbu eta zeharkako zergen kapituluaren, non betetzea ehuneko 8koa izan baita, Ardoi sektorean etxebizitzak eraikitzeko aurreikusita zeuden hainbat obra ez direlako egin.

2011. urtearen aldean, aitortutako betebeharrak ehuneko 11 murriztu dira. Hona zehatz-mehatz:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak		Aldea (%), 2012/2011
	2011	2012	
1. Zuzeneko zergak	3.120.865	3.128.282	0
2. Zeharkako zergak	2.624.633	131.747	-95
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	2.352.152	2.427.213	3
4. Transferentzia arruntak	4.310.629	4.434.786	3
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	492.153	706.481	44
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	12.900.432	10.828.509	-16
6. Inbertsioen besterentzea	-	-	-
7. Kapital-transferentziak	390.217	949.947	143
8. Finantza-aktiboak	10.410	17.623	70
9. Finantza-pasiboak	-	-	-
Kapitaleko diru-sarrerak eta finantza-eragiketak (6.etik 9.era)	400.627	967.570	142
Diru-sarrerak, guztira	13.089.829	11.796.079	-11

Nabarmentzekoa da 2012an beherakada handia izan duela zeharkako zergen (EIOZa) bilketak, Ardoi sektoreko plan partzialan 2010ean egindako aldaketaren ondoren etxebizitzak

eraikitze aurreikusita zeuden obra ia guztiak 2011ko ekitaldian hasi zirelako, eta, obra horiek izan ezik, hirigintzako jarduketak ia erabat geldirik daudelako udalerrian.

Ondare bidezko diru-sarreraren kapituluak, aldiz, igoera nabarmenak izan dituzte, batetik Udalak finantza-entitateetan dituen gordailuengatik interes gehiago eskuratu dituelako, eta bestetik kapital-transferentziak gora egin dutelako, Nafarroako Gobernuak toki azpiegituren planerako 750 mila euroko diru-laguntza emanda.

Taula honetan erakusten da nolako eboluzioa izan duten aitortutako eskubideek udal zerga bakoitzean:

Zergak	Aitortutako eskubideak		Aldea (%), 2012/2011
	2011	2012	
Lurraren kontribuzioa	1.776.633	1.882.246	6
Ibilgailuak	626.347	659.781	5
Lurren balio-gehikuntza	524.754	382.880	-27
JEZa	193.131	203.375	5
EIOZa (eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga)	2.624.633	131.747	-95
Guztira	5.745.498	3.260.029	-43

Alde nagusiak ageri dira EIOZaren bidezko diru-bilketan, txostenaren atal honetan gorago azaldu diren arrazoiengatik, eta gainbalioagatiko diru-bilketan, saldutako etxebizitzaren kopuruaren beherakadak diru-sarrera horien murrizketa eragin baitu.

Gainerako udal zergek igoera txikiak izan dituzte, funtsean zerga-tasak eguneratu egin direlako, aurreko ekitaldian indarra izan zuten tasen aldean.

Balorazio-ponentziaren azken eguneratzea 2006. urtean egin zen. 2010eko ekitaldian Udalaren Osoko Bilkurak eguneratze lanei ekitea onetsi zuen, 2013ko ekitaldiaren hasieratik aurrera koefiziente berriak aplikatzeko asmotan; Nafarroako Gobernuko Etxebizitza Departamentuak egin behar zituen aldaketan ondorioz, ordea, balorazio-ponentzia ezin izan da 2013ko ekitaldi honetara arte onetsi osoko bilkuran. Horregatik, Udalak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko ditu onetsitako koefiziente berriak.

Udalak aplikatutako tasak, lurraren kontribuzioaren eta lursailen balioaren igoerari dagokionez, Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeak ezartzen duen aukeraren tarte baxuan kokatzen dira; eta JEZari eta EIOZari dagokienez tarte altuan, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,17	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,4	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza		
Gaurkotzearen koefizientea	2,86 eta 3,16 bitarte	2,1 eta 3,6 bitarte
Karga-tasa	9,93	8 eta 20 bitarte
Eraikuntza, instalazio eta obrak	5	2 - 5

Tasa horiek ehuneko 2,9 igo dira, batez beste, 2011koekin alderatuta.

VI.7. HIRIGINTZA

Zizur Nagusiko Udalak bere baliabideen bitartez egiten ditu hirigintzako lanak, Hirigintza Alorra izeneko organo baten bitartez; organo horretan diharduten pertsonak hauek dira: hiru ofizial eta aparejadore bat.

Horrez gainera Udalak kanpoko hirigintza-aholkularitza bat badauka –teknikoa eta juridikoa–, arkitekto talde batek egiten duena. 2012an, 26.532 euroko gastua ekarri du aholkularitza horrek.

Zizur Nagusiko Udalaren plana 2004an onetsi zen, eta alderdi garrantzitsuenetan, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ezarritakoari egokitzen zaio.

Udalak 2012an etxebizitzak eraikitzeko obra lizentzia bakarra eman du, babes ofizialeko 19 etxebizitza eraikitzekoa, eta azkenean etxebizitza horiek ez dira eraiki.

Udalaren lurzoru-ondarea erakundearen gainerako ondasunetatik bereizita kudeatzen eta erregistratzen da. Honako hau da haren osaera 2012ko abenduaren 31n:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Ondasunak	4.687.603
Diru-sarrerak	24.508.506
Guztira	29.196.109

Udalak badauka hirigintza-hitzarmenen erregistro gaurkotua. Haren irakurketatik ondorioztatzen da 2012ko ekitaldian ez dela hirigintza-hitzarmen berririk egin, eta ez dela, ezta ere, hirigintza-jarduketa garrantzitsurik egin.

Gure aholkuak:

- *Hirigintzako laguntza teknikoko lanetarako behar den hautapen-prozedura egitea.*

VI.8. ERAKUNDE AUTONOMOAK

VI.8.1. Kultur Patronatua

Kultur Patronatua sortu zen Zizur Nagusiko biztanleen partaidetzarako ildo eta gizarte- eta kultura-erreferentziarako gune gisa, eta gisa honetako jarduerak garatu izan ditu: ikastaroak, gizarte- eta hezkuntza-izaerako hitzaldiak, antzerki- eta dantza-ekitaldiak, entzunaldi eta kontzertuak, proiektzioak, erakusketak, liburutegia.

Kultur Patronatuak ez du langile berekirik, haren langileak Udaleko langileen multzoan sartuta baitaude. 2012ko abenduaren 31n, Udaleko 5 funtzionariok eta bitarteko lan-kontratadun pertsona batek egiten zuten lan Patronatuan.

2012an, 0,45 milioiko gastuak –funtsean ondasun arruntenak eta zerbitzuenak– eta 0,5 milioiko diru-sarrerak dauzka. Hona haien xehakapena:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Kuotak eta sarrerak	99.828
Udalaren diru-laguntza	315.300
Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza	43.401
Enpresa pribatuen diru-laguntza	35.579

Patronatuak gastuen ehuneko 22 ordaindu ditu diru-sarrera berekiekin, bai 2011ko ekitaldian bai 2012ko ekitaldi honetan.

Haren jarduera nagusiak hirugarrenei adjudikatzen zaizkie kasuko kontratuaren bitartez. Kontratu horiek prozedura negoziatuaren bidez izapidetzen dira.

VI.8.2. Kirol Patronatua

Kirol Patronatua zenbait ataletan dago banaturik. Atal horiek kudeatzen eta garatzen dituzte Zizur Nagusiko biztanleei eskaintzen zaizkien kirol jarduerak. Ez du langile berekirik, langileak Udaleko langileen multzoan sartzen baitira. 2012ko abenduaren 31n 4 funtzionariok egiten zuten lan Patronatuan.

2012an, 0,58 milioiko gastuak –funtsean ondasun arruntenak eta zerbitzuenak– eta 0,56 milioiko diru-sarrerak dauzka. Hona diru-sarreraren xehakapena:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Kuotak eta sarrerak	305.288
Udalaren diru-laguntza	196.400
Beste diru-laguntza batzuk.	56.430

Patronatuak diru-sarrera berekiekin gastuen ehuneko 53 ordaindu ditu, eta 2011ko ekitaldian, berriz, ehuneko 58 ordaindu zituen.

Haren oinarritzko kirol jarduerak hirugarrenekin kontratatzen dira prozedura negoziatuen bitartez. Kontratu hauek urtebetekoak izaten dira, eta gehienez ere lau urterako luzatzeko modukoak.

2012ko ekitaldi honetan ez da kontratazio-prozedurarik egin. Aurreko ekitaldietan adjudikatu ziren eta ekitaldi honetan indarrean dirauten kontratueterako, adjudikazio-zenbatekoaren eta ekitaldiko benetako gastuaren arteko desbideratzea aztertu dugu, eta ez dugu inolako gorabeherarik ikusi.

VI.8.3. Musika Eskolaren Patronatua

Musika Eskolaren Patronatuak Musika Eskola kudeatzeko zerbitzua ematen du, eta honako jarduerak garatzen ditu: instrumentazio eskolak, entzunaldiak, kontzertuak eta abar. Patronatuak bere plantilla organikoa eta bere langileak dauzka: 13 lan-kontratupeko langile finko, lanaldi partzialeko bitarteko lan-kontratu duen pertsona bat eta aldi baterako lan-kontratu duen pertsona bat dira langile horiek 2012ko abenduaren 31n.

0,45 milioi euroko gastuak dauzka, zeinak ia guztiz langile-gastuei baitagozkie.

Diru-sarrerei dagokienez, 0,47 milioi, funtsean, honako hauetatik datoz:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Matrikulak eta jasotako ordainketak	197.336
Udalaren diru-laguntza	181.419
Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza	71.018
Enpresa pribatuen diru-laguntza	16.293

Patronatuak diru-sarrera berekiekin gastuen ehuneko 44 ordaindu ditu, eta 2011ko ekitaldian, berriz, ehuneko 42 ordaindu zituen.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an
Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas